

• ASTERKO GAIA •

## Eskola segregatuak

# Neska-mutilak banatzeko nota onak argudio

Gero eta gehiago dira Europan. Gurean bi eskuetako hatzekin kontatzeko adina daude. Euren argumentuak dituzte, garrantzitsuena: neskek eta mutilak bananduta eskola notak hobekak direla. Alabaina, generoen arteko estereotipoak ez dituzte gainetik kendu.


### ONINTZA IRURETA

ESKOLA BATZUEK neskek eta mutilak banatu arren diru-laguntzak jasotzen dituztela-eta puri-purian jarri da eskola segregatuaren gaia. Eskola mistoaren edo bereziaren aldeko eta kontrako eztabaida baino gehiago izan da, hala ere, dirua eman-ez eman tirabira.

Euskal Herrian zortzi ikastetxe dira neskek eta mutilak bereizita hartzen dituztenak, denak Opus Deirenak. Irakaskuntzako hainbat eragilek eskatu du diru-laguntzak kentzea. Espainiako Estatuan erkidegoen esku geratu da erabakia. Oraingoz Nafarroan eta

Hendaiako eskolan, sarrera mutilentzat eta sarrera neskentzat. Orain arrunta bada elkarrekin ikastea duela gutxi arte ohikoena bereizita aritzea zen.

MIKEL GARCIA



## ● Eskola segregatuak

Euskal Autonomia Erkidegoan dirua jasoz segiko dute. Guk dakigula Iparraldean ez da halako eskolarik.

Diru kontuak beti dira inportante, baina irakaskuntza ereduak aukeratzea ez da ahuntzaren gauerdiko ez-tula. Zergatik egin eskola mistoaren alde? Zergatik bereziaren alde?

Gaia oso konplexua dela iritzita, telefonoa hartu dugu mila eta bat argumentazio entzungo dugulakoan: “Ez daukagu inor horretan aritzen denik. Bigarren mailako gaia da, guk ez dugu zalantzarik, eskola mistoa eta kito. Gizartean emakume eta gizon batera bizi dira, bada eskolan ere neska-mutilak elkarrekin”. Irakaskuntzako hainbat eragileren erantzuna.

Ezin du hain erraza izan. Munduan zehar, herrialde garatuetzat ditugunetan, Ingalaterran, Australian, Alemanian, Suedian, Amerikako Estatu Batuetan eta Kandan, esate baterako, gero eta gehiago dira

eskola segregatuak. Eskola mistoaren alde sutsuki borrokatu zuen hainbat feminista bereizketaren alde hasi da hitz egiten. Neskek eta mutilak banatzen baditugu atzeraka ari al gara?

### Nota hobek

Heziketa segregatuaren aldekoen argumetu nabarmenena horixe da: berezita emaitza akademiko hobek dituzte, bai neskek bai mutilek. Heldutasun psikologiko eta biologikora iristeko erritmoak desberdinak direla argudiatzen dute segregatuaren aldekoek, mutilak beti arrastaka dabilta, nesken atzetik. Horra hor mutilen eskola porrotaren arrazoietakoa bat. Mutilen autoestimua behera egiten du etengabe. Neskek, bakarrik arituz gero, azkarrago egingo dute aurrera ikasketetan. Arrazoi gehiago ere badituzte segregatuaren aldekoek. Eskola mistoak ez du lortu generoen arteko

## Eskola segregatua gaur?

Eskola segregatua defendatzeak eragiten didan gaitzespena –hezkuntza publikoan urte askoan lan egin eta gero– hobeto adierazteko ikerketa eta estatistika zorrotzen bila ibili naiz. Kasik ez dut batere aurkitu. Urritasun horretan, Marina Subirats soziologo katalana aipatuko dut. Berak dio astakeria dela baieztatzea eskola segregatuak hobetu egiten duela ikaslearen garapena eta garapen akademikoa.

Besteren artean, konparaketa bakarra egin daitekeelako: batetik, heziketa segregatua saltzen duten aberatsentzako eskola pribatu elitista gutxi batzuk, eta bestetik, beste eskola pribatu guztiak eta eskola publikoak. Azken horiek heziketa mistoa dute.

Eskola mistoa, derrigorrezko eskolarekin batera, jauzi kualitatibo handia izan da klase popularraren heziketan eta horiei unibertsitateko ateak zabaltzerakoan.

Mutilek eta neskek elkar hobeto ezagutu eta errespetatzen dute eskola mistoa moduko giro anitz eta arautuetan, batik bat, hezkidetza praktikatzan bada.

Oso ondo gogoratzen dut batxilergoa amaitu arte ikasi nuen eskola segregatua. Gogoan ditut neskek mutilekiko zituzten topiko, konplexu eta akatsak, eta alderantziz. Gogoan dut analfabetismo zabaldua eta ikasketa gabezia emakumeen artean, zein gutxi helitzen ziren batxilerrera. Oso gutxi iristen ziren unibertsitatera.

Uste bada gizakiaren gaitasunak heziketaren bidez garatzen direla, ezin da justifikatu ikasleak banatzea

oraindik beren gaitasunak behar bezala garatu ez dituztenean, eta ezin da inor utzi irakaskuntzarik gabe.

Irakaskuntza segregatuaren aldekoek lasai ederrean diote emakumeak eta gizonak ez direla egiten, baizik eta “jaio aurretik desberdinak direla neskek eta mutilak”. Desberdinak bere horretan –genetikoki norbanakoa bakarra da– eta hara non! mutilak beti izan diren bezalakoak ere badira: “Oldakorrak, bortitzak, arduragabeak eta menperatzaileak” eta neskek: “Behar den bezala” XIX. mendeko “aingeruaren sutondotik”: “enpatikoak, zaintzaileak, zerbitzariak eta arduradunak”.

Alegia, zientziak esaten duenaren kontrakoa. Albert Jacquard biologoak dio norbanakoa bakarra dela genetikoki, eta gizartearen eta gure borondatearen arabera osatzen goazela hainbat norabidetan. Adimen genetiko femeninoa duen nortasunik ez

dago, ez maskulinorik, ez beltzik, ez zuririk... Egia da eskola mistoak ez duela erazi bortizkeria maskulinoa ez neskengandik ez mutilengandik. Nahiz eta hezkidetza garatzen den eskoletan enpatia eta kooperazioa landu, eta eskola mistoan elkarbizitza. Alabaina, gerra onartu eta oldarkortasun eta lehia-kortasun maskulinoa sustatzen dituen (baita eskola segregatuan ere) gizarteak nola eska diezaioket serioski eskolari horiei irtenbidea emateko?

Isabel Uria Serrano,  
irakaslea



## “Segregazio naturala” izan daiteke elkarrekin jardutera bultzatu behar gaituen aukera

Genero identitateek emakume eta gizon asko paper jakin batzuetan kokatzen gaituzte. Paper horiek gehienetan oso desberdinak dira eta egoera askotan agerian behatu ahal dira. Adibidez, seguru asko gehienok ondorengoa ikusi dugu: koadrila mistoan, emakumeak alde batean hitz egiten ari dira eta bestean gizonak. Ezerk eta inork fortzatu gabe, generoak eman digun lekuan jartzen gara: gure “kide naturalekin” “gure gaztetaz” hitz egiten, “gure espazioak” okupatzen, “gure rolak” betetzen. Adibidez, amak ume zain parkean.

Gizartean, lagunartean ikusten duguna, eskolako geletan ere errepikatzen da: neskek neskekin nahiago dute egon, eta mutilek mutilekin. Jolastokian jolas desberdinetan ari dira, mintzagaiak ere oso desberdinak izaten dira, harreman motek ere desberdintasun ugari dute. “Zergatik?” galdetzen nion neure buruari; “zergatik?” galdetzen dute irakasle askok; “zergatik?” galdetzen dute guraso askok eta askok; “zergatik?” galdetzen dute ikasleek. Sexismoak pertsonok bi multzotan kokatu gaituelako, bi multzo balore, kode eta bizipen desberdinekin. Gainera, bi multzo hierarkizatuak dira, gizonezkoenak emakumezkoenak baino balio handiagoa du, noski!



Hezkidetzan landu dudanean, nagusiekin zein umeekin, oso desberdina izan da taldea mistoa edo genero bakarrekoa izan denean. Generoak asko baldintzatu du eztabaida mota, saioen garapena, emozioen adierazpenerako askatasuna, partaidetzaren kalitatea zein kualitatea... Orokorrean, sentsazio nagusia izan da ez geundela gustura, askotan borrokan hasten ginen neskek mutilen kontra eta horiek nesken edo feminitatearen kontra.

Hainbat gai, sentimendu, momentu, ideia lantzeko ez da egokia talde mistoekin hastea. Argi daukat. Talde mistoa ez da emakume eta gizon askorentzako espazio segurua. Bertan ezin gara gure generoetatik eskapatu. Emakumea naiz gizonen aurrean. Gizona naiz emakumeen aurrean. Talde mistoak genero-rolak bir-

sortzea asko errazten du: botere-hierarkiak “defendatu” behar dira, beraz, “aliatuak” topatu behar dira (norbere generoan, normalean), talde identitatea sortzen da aliatuen artean, eta talde horien balioak eta portaerak martxan jartzen dira beste aurrean.

Egoera horiek gaudituz eta guztientzako espazio segurua topatu nahian, hezkuntzako programetan nesken taldea eta mutilen taldea sortzera animatu nintzen. Helburua, seguritatea lortzeaz gain, besteekiko identifikazioaren bidez, norbere identitatea aztertzea izan da. Zer naizen eta zer izan nahi dudana dira galderak eta hausnarketak. Ditudan bizipenetatik eta sentimenduetatik nire burua ondo ezagutu, besteekiko interesa pizteko asmoz. Besteak, beste neskek eta beste mutilek dira.

Segregazio “natural” hori izan daiteke elkarrekin jardutera eta egotera bultzatu behar gaituen abiapuntua eta aukera. Gure genero-ezaugarri komunek elkarrekin egotea errazten dute; hausnarketa kooperatiboak eta talde-lanak beste generoen ezagutza eta bizikidetzan erraztu beharko lukete.

*Marije Apodaka, psikologoa.  
Taldea dinamikan eta  
hezkidetzan ari naiz*

berdintasuna, sexuen arteko borroka ikasgeletan segitzen du, genero bortizkeriak hor jarraitzen du.

### Genero oreka helburu

Eskola mistoaren aldekoek ez dute zalantzarik: ikastetxeko atea irekitzeko haurrek egokitu zaien munduan bizi behar dute eta mundu horretan emakumeak eta gizonak batera bizi dira. Gizarte horretan bizitzeko prestatu behar dira, elkarbizitzarako. Gizar-

tean apurtuta dagoen genero oreka, berdintasuna, eskolan lortzen saiatu behar da. Denek izango dituzte aukera berak, neskek eta mutilek, ikasgaiak aukeratzekoan, unibertsitateko ametsak egiterakoan, lanbidea hautatzekoan. Hain justu eskolak lagundu behar du gizarteko generozko estereotipoak puskatzen. Eta emaitza akademiko hobeak lortzen dituztela neskek eta mutilek bereizita? Izan liteke, nahiz eta ikerketa horien zientifikotasuna zalantzan jar-

Argitaletxearen azken argitalpenak

**Yorick Liburudendan edo [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) eskura ditzakezu**

Love Josu Montero	Amismategian (el-Mislika) Pablo Barrio	La caja Plick Carlos Be	El arte del actor en el siglo XX Borja Ruiz

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / [www.libreriayorick.com](http://www.libreriayorick.com) / [info@libreriayorick.com](mailto:info@libreriayorick.com)

## Sexuen arabera banatutako hezkuntza

Egia da, azkenaldian, sexuaren arabera banatutako hezkuntza-aren aldeko ikerketak eta iritziak dabiltzala hor barna, neskak eta mutilak espazio ezberdinetan banatuz gero batzuek zein besteek emaitza akademiko hobeak lortzen dituztela argudiatuta. Proposamena ez da berria; bai, ordea, egoera, gure seme-alabak gizarte berri batean hezi behar baititugu. Dena dela, banaketaren aldeko kalifikazio akademikoak hobetzen direla argudiatzen dute batez ere, baina ez dira beste alderdi garrantzitsu batzuk kontuan hartzen; hala nola, eskolaren helburua pertsona bere osotasunean heztea dela, eta horrek, ikasketza kognitiboa ez ezik, alderdi soziala, afektiboa eta emozionala ere biltzen ditu. Eta neskak eta mutilak ikasgela berean elkarrekin bizitzeak hori errazten du.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere hezkuntza berritzeko lehentasun-ildoetan, eskola inklusiboaren aldeko apustua egin du, hots, guztientzako eskola. Bada, eskola-eredu horren planteamenduetan ez da sexuaren araberako banaketa defendatzen. Izan ere, Sailaren hezkuntza-politika ekitatean eta kohesio sozialean oinarritzen da; halaber, dibertsitatearekiko errespetua hartzen da aintzat, eta desberdintasunak gainditzea

du helburu. Hezkuntza horrelaxe ulertzen du, orobat, hezkuntza-komunitateak ere. Alabaina, horrek ez du ikasketzak lortzeko orduan efizientzia gutxitzen, ez eta bakoitzak bere bizi-proiektua garatzeko duen askatasuna murrizten ere.

Horrenbestez, hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plan bat diseinatzen



ari gara, argi baitugu gaur egungo eskola mistoaren ereduak ez dituela potentzialtasunak neska-mutil guztiengan garatzen.

Hori da eztabaida, hain zuzen: gaur egungo eskola mistoa dela, alegia, eta ez hezkidetzan oinarritua. Ondorioz, genero-arrazoiak direla-eta gizartearen dauden estereotipo eta desberdintasunak errepikatu egiten dira eskolan ere, eta hori ez da ona ez mutilentzat ez neskentzat, neskek eskola-porrot gutxiago badute ere.

Onartzen dugu neskak hizkuntzetan hobeak direla, eta mutilak matematiketan. Nola ez da bada

horrela izango, mutilengan eta nesken alderdi ezberdinak sustatzen baditugu? Wisconsin Madison Unibertsitateko psikologo den Janet Shibley Hyde-k esaten duenari jarraiki, hainbat eta hainbat ikerketa egin ondoren esan ere, ezberdintasun baina antzekotasun gehiago dago sexuen artean. Emakumeak hizkuntza-alorrean trebeagoak izateak ez du garrantzirik. "Amak edo irakasle batek ikaslea matematikak ikasteko gai ez dela uste izateak izugarri eragin dezake emaitzetan, bai eta ikasleak bere etorkizuna aukeratzeko orduan ere".

Bestalde, mutilek eta neskek matematiketan eta hizkuntzan lortutako kalifikazioen gaineko datuak ematen direnean, PISA aipatzen da. Beste datu batzuk, ordea, isilean gordetzen dira. Esaterako, Europako Unibertsitatearen Institutuak (Florentzia) zuzentzen duen ikerketa batek matematiketan eta hizkuntzan lortutako emaitzak alderatu ditu hainbat herrialdeetan, eta genero-berdintasun handiena duten gizarteetan, hain zuzen, nesken eta mutilen emaitzen arteko alde hori murriztu egiten da, hala nola Suedian, Norvegian, Finlandian, Islandian eta Zeelanda Berrian.

*Hezkuntza Berritzatzeko  
Zuzendaritza  
(Eusko Jaurlaritza)*

tzekoa den. Emaitzak hobeak balira ere eskola mistoak ez du lehentasuna horretan; elkarbizitza da helburu, ez nota bikaineko ikasleak izatea.

### Arrakasta elitiko eskolak direlako

Amaia Zubieta Stee-Eilas sindikatuko Nafarroako Emakumeen Idazkaritzako arduraduna da. Duela bi urte arte izan da irakasle. Eskola segregatuei ematen zaizkien dirulaguntzak medio sortu den eztabaida dela-eta,

Opus Deiko ikastetxeetako zuzendariekin hitz egitea egokitu zaio aspaldion. Oso ondo ezagutzen ditu haien argumentuak: "Emaitza akademiko hobeak lortzen direla bereizita. Arrazoi hori politikoki zuzena da eta era berean gurasoentzako amua. Nafarroako eskola bereizi guztiak Opus Deirenak dira eta haien webguneetan begiratu besterik ez dago. Lehen hurbilketan jada genero estereotipoak garatzen dituztela ikusiko dugu: neskak bata arrosarekin, mutilak kirol jantziekin. Noski,

hori ez da politikoki zuzena”. Amaia Zubieta ez du harritzen eskola horiek emaitza akademiko hobekiak lortzeak, baldintzak ere halakoxeak baitira: “Arrakasta dutela? Hori tranpa da! Eskola publikoan batera dituzu etorkinak, gaitasun urrikoak, maila sozio-ekonomiko altukoak, baxukoak... Eskola pribatu horietan azkarrenak, maila sozio-ekonomiko altuena-takoak bildu dituzte, eta azkar doaz, noski!”. Alegia, emaitza hobekiak dituztela ez neskak eta mutilak banatu dituztelako, baizik eta eliteteo eskolak direlako.

Europakoak diren bezala. Gero eta ikastetxe gehiagok banatzen ditu neska-mutilak, Zubietaren ustez hein batean Ingalaterrako kultura anglosaxoia errepikatuz: eredu hierarkikoa non piramidearen puntan diren gizon zuri anglosaxoia eta emakume zuri anglosaxoia. “Ikuspegi feminista izan liteke emakumeak askeagoak, independenteagoak eta jakinduria gehiagokoak izatea, baina goi mailako emakumez ari dira, goi mailako gizonaren pare-ira iristeko ahaleginean”.

### Eskola mistoa bai, baina hezkidetza?

Artikuluaren hasieran esan dugu irakaskuntzako hainbat eragileekin hitz egin dugula eta gehienek adierazi digutela bigarren mailakotzat dutela gai hau. Eskola mistoa da neska-mutilen arteko berdintasuna lortzeko bidea. Alabaina, eragile berberak aitortu digute berdintasuna urrun dagoela, genero bortizkeria ikasgeletan dagoela, neska-mutilen arteko desorekak eta ezinulertuak egunerokoak direla. Ez da nahikoa ikasgelan elkarren ondoan esertzea, propio landu behar da gaia: hezkidetza edo koedukazioa deitzen zaio horri. Eta irakaskuntzako eragileek aitortu dute ez dagoela berdintasuna lortzeko plan sistematikorik, ez

**“Arrakasta dutela? Hori tranpa da! Eskola publikoan batera dituzu etorkinak, gaitasun urrikoak, maila sozio-ekonomiko altukoak, baxukoak... Eskola pribatu horietan maila sozio-ekonomiko altuenetakoak bildu dituzte, eta azkar doaz, noski!”**

AMAIA ZUBIETA (STEE-EILAS)

behintzat Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Hezkidetza teoriarik bai, baina praktikan irakasleen borondatea eta instituzioen akzio puntualak daude. Amaia Zubietak onartu du koheziketa ez dela bermatzen: “Ados nago. Baina bereizita bai ez dela inoiz izango koheziketarik. Orduan bai ez dagoela baldintza egokirik. Intentsionalitate pedagogikoa behar da berdintasunerantz urratsak emateko. Nola lortu berdintasuna besteak ezagutzen ez badituzu? Segregatuaren aldekoak diote eskubide berberak dituztela denek eta horretan saiatzeko direla, baina ikasleek eskolan gizarte-errealitatea ez dute ezagutzen eta berdintasunaren aurkako presio soziala handia da”.

Marije Apodaka psikologoa da eta hezkidetzan aritua. Neskak eta mutilak norbere generoan harrapatuta sentitu ditu ikasgeletan eta berdintasunerako bidaian hainbat tailer bereizita egitea erabaki zuen. Espazio banatuetan askeago, lasaiago sentitu ditu neskak zein mutilak, norbera ezagutzeko pausoak ematen. Helburua ez da neska-mutilak bereizita heztea, elkarrekin aritzera heltzeko abiapuntua baino ez da banaketa.

Atzo goizeko kontua da eskola segregatuena, zuetako askok ikasiko zuten neskak neskekin eta mutilek mutilekin. Neskek kakorraz-lanak eta gurutzeko puntua ikasi zenituzten, mutilak berriz geometriari trebatuko zineten. Hurrengo belaunaldiari munduko gauzarik arruntena egin zaigu neska-mutilak batera ikastea, eskola curriculum bera izatea. Aurrerapausoak handiak izan dira, baina, agian, batzuek amestu baino txikiagoak. Generoen arteko ezjakintasunak, errespetu faltak, estereotipo errepikatuek, gu eta besteak-en erreproduzioak... ikasgeletan jarraitzen dute. ■